

ALOKAIRUA ORDAINZETIK ALDI BATERAKO SALBUESTEA SALBUESPENEZKO NEURRI GISA

Eusko Jaurlaritzak 2,5 milioi euro bideratuko ditu COVID-19 funtsetik, kalteberatasun ekonomikoaren egoeran dauden pertsonen alokairuen ordainketaz arduratzeko.

ZERTAN DATZA LAGUNTZA?



Laguntzak alokairu babestuko EAEko parke publikoetan egoera ekonomiko kalteberan dauden errentariak alokairua eta komunitate-gastuak ordaintzetik aldi baterako salbuesten du.

Salbuestea 2020ko apirileko, maiatzeko eta ekaineko errentei aplikatzen zaie hilabete osoak.

NORTZUK IZAN DAITEZKE ONURADUN? ?



EAEko etxebizitza-parke publikoetako etxebizitza baten 2020ko martxoaren 14a baino lehen indarrean zegoen eta formalizatutako errentamendu-kontratu baten titular diren pertsona guztiak, norberaren izenean edo errentakide gisa eta langabezian geratu dira edo langile autonomoen edo enpresaburuen kasuan, diru-sarreraren galera edo salmenten % 40ko beherakada edo handiagoa jasaten dutena.

NOIZ ETA NOLA ESKA DAITEKE?



Eskabideak 2020ko maiatzaren 31ra arte (edo alarma-egoera amaitu eta hilabetera arte) bide hauen bidez aurkeztu ahal izango dira:

- www.euskadi.eus/servicios/11022401
- Zuzenean Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren bulegoetan
- Alokabide sozietate publikoak dituen kanaletan (www.alokabide.euskadi.eus)

LAGUNTZA ASAP, BIZIGUNE ETA GAZTELAGUN PROGRAMETARA IRISTEN DA?



BAI. Bizigune eta ASAP programa sartutako etxebizitzaren errentariak, agindu honetan kalteberatasun ekonomikoaren egoeran badaude, **salbuespen-eskaera aurkeztu ahal izango diote kontratua sinatu zuten agente laguntzaile homologatuari.**

Gaztelagun kasuan, pertsona horiek apirilean, maiatzean eta ekainean jasotzen duten laguntza aitortuta zuten diru-laguntzaren osagarria izango da.